



Teknikariek Usabalgo kirolgune berria aurkeztu dute Kirol Astean

TOLOSA ▶ Igerilekua ekainean irekiko du Udalak eta gainontzeko zerbitzuak udazkenerako nahi dituzte ▶ 2



Usabalgo kirolgune berriaren lanen egoera, atzo arratsaldean. EDURNE AYUSO



IMANOL GARCIA

Udalak herriko mapa toponimikoa argitaratu du

VILLABONA ▶ 530 toponimo inguru biltzen ditu; Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du; udaletxean ari dira banatzen ▶ 4

IBARRA ▶

Presoen aldeko 500 banderola jarri nahi ditu Herri Ekimenak

Biharko presoen egoera salatzen manifestazioa antolatu dute ▶ 6

HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA

Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu

Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA

www.saldias-miguel.com
saldias@saldias-miguel.com

Saldias Miguel
Nº D.G.S.J.1759

ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

KOTXE ASEGUURUAK

- MOTOAK
- ZIKLOMOTOREAK
- ISTRIPU ASEGUURUAK
- BIZITZA ASEGUURUAK
- ETXEBIZITZA ASEGUURUAK
- BAJAK
- ERANTZUKIZUN ZIBILA

- ENPRESAK
- MAILLEGUAK
- INBERTSIOAK
- KOMUNITATEAK
- E.P.S.W. (desgrabazio fiskala)
pentsio planak, jubilazio...

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa
Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

GABONAK ▶

Cava turroia da Gorrotxategi konpitegiak egun hauetarako atera duen aurtengo berrikuntza

30 bat turroi mota desberdin eskaintzen ditu plaza Zaharreko erakusleihoan

ERREDAKZIOA

Tradizio handiko etxea izanda, ohituak gaude Tolosako Gorrotxategi konpitegiak berrikuntzak aurkeztera. 1680tik datoreen Xaxu etxeak izpiritu berri sortzailea erakutsi du azkenaldian, batez ere Jose Mari Gorrotxategiren eskutik, eta azken urteotan bere seme Rafael eta Iñakiren bidez. Aurtengo berrikuntza cava turroia da, egun hauetarako prestatu duen postre berezia.

Euskal sukaldaritzaren pausoak jarraituz, Joxe Mari Gorrotxategi hasi zen gozokietan berrikuntzak sartzen. Duela 35 bat urte sortu zuen armagnac turroia. Intxaursal-tsa turroia —hogei bat urte baditu— etxeko ikurra bihurtu da. Betidanik egiten dituzte Cadiz, gorringo, fruta, girlatxe... turroiak.

Azken urteotan bi berrikuntza garrantzitsu aurkeztu ditu Gorrotxategi konpitegiak: mandarina turroia eta franbue-

sa jogurtaren turroia. Mandarinnazkoa 2000 urtean aurkeztu zuen. Gorrotxategi familiak Xaxu konpitegian 75 urte bete zituela gogoratzeko. Iaz berriz, franbuesa jogurtarena atera zuten. Biek arrakasta handia izan dute hemen eta kanpoan. Atzerriko leku askotara iritsi dira bi sorkuntza hauek, ohiko beste turroiekin batera.

Kanpora bidaltzeko turroiak kaxan saltzen badituzte ere, plaza Zaharreko erakusleihoan 30 bat mota desberdin di-

tuzte, aipatutakoak eta beste batzuk, kaxan sartu gabe.

Lehengai onenak

Hauetako turroi asko ez dira Tolosatik kanpora saltzen. Adibidez, aruten sortu berri duten cava turroia. Lehengai onenak erabili dituzte turroi hau egiteko: Boli Kostako kakaoa, marcona motako almendra, Agusti Torello cava eta azukrea dira, besteak beste.

Artisau erara lan egiten



Cava turroi berria. HITZA

duen familia tolosar honen azken sorkuntza da cava turroia. Tradizioa eta berrikuntza uztartu dituen bide luze baten azken fruitua.

KIROLA ▶

Usabalgo kirolgune berria aurkeztu dute Kirol Astean

Ekainean irekiko dira igerilekuak eta udazkenean gainontzeko zerbitzuak

EDURNE AYUSO

Datorren urteko ekainerako, edonoren eskura izango dira Usabalgo kirolgune berriko hainbat zerbitzu. Hori jakitera eman dute Tolosako Kirol Astearen baitan eskaini duten mahai-inguruan. Andoni Imaz kirol zinegotziak, Asier Bakaikoa Udaleko kirol teknikariak, Angel de la Hoz arkitektoak eta Javier Garcia Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak eman zituzten proiektuaren inguruko azalpenak. Angel de la Hoz izan da hain zuzen ere, Cristina Fontan arkitektoarekin batera proiektua garatu duena.

Usabalgo kirolgune berriak, kanpoko nahiz barruko zerbitzu ugari eskainiko ditu. Javier Garcia adierazi duenez, «kirola egiteko horren aukera zabaldua ematen duen Gipuzkoako kiroldegirik handiena izango da». Hala ere, honek ez omen du Tolosako kirol politika aldaketu, nahi duen orok atek irekita izango ditu eta. Bestalde, Garciaen aburuz, azpiegitura hobea izateak kirol politika hobea egiten lagunduko du, baina horrek ez du ezer ziurtatzen.

Kiroldegiaren eraikin handiaz gain, kanpoko zenbait gune ere atonduko dira Usabalen. Esate baterako, Oriá ibaia-



Javier Garcia, Foru Aldundiko teknikaria; Asier Bakaikoa, kirol teknikaria eta Angel de la Hoz arkitektoa

ren inguruan hondartzak moduko bat sortuko dute eta arrantzarako gune berezi bat ere ez da faltako. Gerora begira, kanpoan kirola egiteko eskaintza zabaldu nahi dute, adibidez, bide gorria egin nahi dute. Ibil-tzea gustuko dutenek ere izango dute nahikoa leku, izan ere, Garcia azpimarratu duenez, «oinez ibiltzea da Gipuzkoan gehien egiten den kirola».

Usabalgoa lau solairuko eraikin ikusgarria izango da. Sotoan, besteak beste, entre-

namendu pista, gimnasioak, kirol medikuntzarako gelak, bilera gelak, rokodromoa eta balio anitzeko guneak izango dira. Lehenengo solairuan kokatuko dira barruko eta kanpoko igerilekuak, saunak, solariuma eta aisialdiko kirolak egiteko areto bereziak ere. Bigarren pisuan, zatirik handiena jate txetxak hartuko du. Jate txetik bertatik igerilekuak ikusiko dira. Txapelketetarako korrikarako pistak ere solairu honetan kokatuko dira. Azke-

neko oinean berriz, ikusleentzako harmailak izango dira.

Itxura erakargarria

Kanpotik oso itxura erakargarria izango du. Eraikinaren lehen metroak kolore beltzezko basalto harriz estaliko dira eta igerilekua, kristalezko kubo handi bat izango da. Jatetxea ere kristalezko horma batekin inguratuko du. Korrikarako pista berriz, zilarrezko kolorea izango duen txapa batekin inguratu-

ko du. Itxura erakargarria izateaz gain, herritarrentzako gune eroso egiten saiatu dira. Horregatik, pisu batetik bestera eta eraikinean zehar mugitzeko igarobide eta tunel erosoak erakiko dira. Bestalde, kirol gune bertara iristeko autobus zerbitzua ere izango da herrian.

Usabalgo kirolgunea hiru epetan zabalduko da. Datorren urteko ekainean irekiko dira lehenengo instalakuntzak. Hala nola, ekainetik aurrera bezeroen eskura izango dira kanpoko igerilekua eta txapelketetarako igerileku estalia. Hauekin batera irekiko dira aldagelak. 2005eko udazkenean martxan jarri nahi dituzte pista nagusia, futbol zelaia eta gimnasio eta muskulaziorako gelak. Hirugarren epetan, irekiko dituzte gainontzeko zerbitzuak ere. Aurrera begira, itxitako frontoi bat, teniserako pista eta haurrentzako jolasleku bat eraiki nahi dituzte. Proiektu hauek ordea, denboraren eta aurrekontuaren arabera gauzatuko dira.

Kirolguneko zerbitzuak ez ditu Udalak berak bideratuko. Proiektua Tolosaldea Lantzen garatzen ari denez, legeak, Usabalgo zerbitzuen kudeaketa lehiaketa publikora aurkeztera derrigortzen ditu.

Usabalgo kirolgunea ireki ahal, Igarondo igerilekua eta Berazubiko kiroldegia bota egingo dituzte. Andoni Imazek adierazi duenez, Udala Tolosa futbol talderekin ari da hitz egiten. Usabal eta Berazubiko futbol zelaiko zerbitzuak nola uztartu aztertzen ari dira. Dena dela, datorren urtera arte itxaron beharko da Usabalgo lanak bukatu arte.

MUSIKA ▶

Gabonetako kontzertua, Santa Klaran

Tolosako Orfeoiak eskainiko die gaur, 20:30etik aurrera, herritar eta lagunei

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Orfeoiak Gabonetako kontzertua eskainiko die gaur, 20:30etik aurrera, herritarrei eta lagunei, Santa Klara elizan. Kutxak parte hartzen du urtero ekitaldi horretan, eta aurten ere gauza bera egingo du. Mozart-en Koronatzeko meza entzuteko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek lehenik, eta ondoren Gabonetako abestiak eskainiko dituzte Orfeoiko kideek: besteak beste, Grubber-en *Noche de Dios*, J. Readin-en *Adeste Fideles*, Adam-en *Oh holy night*, I. Berlin-en *White Christmas*, *Oi bethleen* eta *Joy to the world*.

Tolosako Orfeoiairen arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete taldean aritzen diren abeslariari, «kalitate handiko obrak prestatzen saiatzen direlako eta urte urte, aurrekoetako lanak hobetzen ahalegintzen direlako». Horrez gain, herritarrei Tolosako Orfeoia babesten jarraitzeko deia egiten diete, «gure alde apustu egiten dutenei esker egiten dugulako aurrera, gure emanaldiak ikustera joaten direnei esker».

Mokoroak Tolosako Orfeoia sortu zuenetik mende osoa bete denean, aurrera darrai taldeak. Orain sei urte jarri zuten tolosarrek berriz ere abian, eta



Tolosako Orfeoia. J. SAIZAR

ordutik hona lan handia egin dute bertako partaideek maila handiko kantuak bateko eta besteکو saioetan interpretatzeko. Taldearen ahotsa gaztetze aldera, kide berriak sartu dira azken urteetan Tolosako Orfeoian, eta edonori irekia dagoela esan dute arduradunek: «Mokororaren garaian zaldiz etortzen ziren Ordiziatik Tolosara entsegatzera, eta Tolosaldeko eta Goierriko herritarrei gonbita egin nahi diegu gurekin batera kantatzera etortzeko. Asteazken bat egunez entsegatzeko gogoia izatea, besterik ez dugu eskatzen».

Deialdi horri erantzunez, taldearekin harremanetan jarri nahi duenak honako telefono zenbakira deitu beharko du: 943 67 23 95.

ZINE-KLUBA ▶

'Open range' filma izango da gauean Leidorren

21:30etik aurrera eskainiko dute Kevin Costner aktore eta zuzendariaren filma

I. ETXEBESTE

Kevin Costner aktore eta zinema zuzendariaren *Open range* filma eskainiko dute gaur zine-klubaren sustatzaileek Leidor zinema aretoan, 21:30etik aurrera. Iraganetik ihesi dabilten bizigizon dira film horretako pertsonaia nagusiak. Legeak Naturak baino zehazten ez dituen lekura jotzen dute, bakeroen bizimodua jarraitzeko: justizia defenditzea eta ondokoarekiko fidela eta leiala izatea. «Bakeroek indarkeria erabiltzea ekiditen dute».

Egun batez mugan dagoen hiri batera joaten dira, eta ustelkeria eta tirania handia dagoela ohartzeko dira bertan. Gizonetako bat, Charly Waite (Kevin Costner) bakartia, emakume batekin maiteminduko da ustekabeaz, eta bizitza aldatuko zaio.

Lauran Paine idazlearen *The open range* eleberriaren dago oinarrituta filmea. 2003ko Donostiako Zinemaldia itxi zuen lan horrek, eta arrakasta handia izan zuen ikuslearen artean. Kanadan hasi ziren grabaketa lanetan, 2002ko ekainean, 45 milioi dolarreko aurrekontuarekin.

ARETO FUTBOLA ▶

Hegoaldeko 6 eta 2 irabazi dio Kettal Fuenlabradari

«Garaipen handia lortu dugu horrelako talde bati irabazita», dio Amilibia entrenatzaileak

ERREDAKZIOA

Hegoaldeko Fuenlabradako Kettal taldearen aurka jokatu zuen larunbatean Berazubini. Partida joko biziz hasi zela esan beharra dago, eta lehen bi minutuetan Hegoalde izan zela baloia jabe. Modu horretan etorri zen lehen gola, izan ere, Nerea Salazarrek gola sartu zuen (1-0) lehenengo hamar segundotan zaleen harridurarako. Partidako lehen minutuetan kantxa erdian jokatzeko aukera egin zuen Hegoalde; Kettal, berriz, presionatzen eta, apurka-apurka, Hegoalderen jokoa puskatzen hasi zen. Kettalen azkartasunari eta tiro trebeziari esker, markagailua berdindu zuen (1-1) Ania mardildarrak 8. minutuan. Hegoalde, ordea, ez zen atzean geratu eta atea asko defendatzeaz gain ihesaldiak ere egin zituen. Horieta baten ondorioz, bigarren gola (2-1) eman zion Isak Hegoalderi 9. minutuan. Kettalek, baloia asko mugitzen zuela eta joko azkarra egiten bazekiela erakustearekin batera, 2-2 marraztu zuen atsedemaldirako azken unean, 19. minutuan. Hala joan ziren bi taldeak aldageletara.

Bigarren zatian, baloia erdiguinean mugitzeko joera nagusitu zen. Bai Hegoalde bai Kettal markagailuan aurrea hartzeko asmoz atera ziren kantxara, baina ez zirudien lehen zatiko bizitasunarekin zetozenik. Hala ere, 24. minutuan 3 eta 2koa ekarri zuen Aranako Hego-

aldera. Kettalek, bereari eutsi eta mugimendu azkarren bitartez jaurtiketak bilatu nahi zituen jokalaritza tolosarren artean. Baina Hegoalde, atea zainduz kantxan gora joaten hasi, eta gol aukera mordo izan zituen. Horieta bati gol bilakatu zuen Nereak 28. minutuan eta Kettali bi golen alde atera zion (4-2). Aldek ateratako kornere bati esker Maider Lopezek 5. gola (5-3) sartu zuen buruz 38. minutuan. Kettalek ez zuen gol aukerarik bilatzen. Hegoalde gustura zebilen kantxan eta partida amaitzeko minutu bakarra falta zela zelai erditik jasotako pase bat modu erakarrikerriarekin sartu zuen Aranako (6-2). Nerea Salazarrek bi txartel hori jaso zituen zati banatan, bata esku egiteagatik eta bigarrena ustez, kekatzeagatik. Beraz, ondorengo egunetan jakingo da zer zigor jasoko duen.

Partidako jokoa harira, Virginia Amilibia entrenatzaileak lehenengo zatia orekatuta egon zela eta emaitza zuzena izan zela zioen. Bigarren zatian buruz, berriz, honakoak: «Hegoalderen taldeko jokoak Kettalena gainditu eta horri esker gol aukera asko izan ditugu». Gainera, atsedemaldian akatsak zuzentzeko aukera izan zutela eta Kettal baino gehiago izatea lortu zutela esan zuen Amilibiak. Partidaren emaitzaren inguruan galdetuta, berriz, gustura agertu zen entrenatzaileak: «Garaipen handia lortu dugu horrelako talde bati irabazita».

hitza *lagunen txokoa*

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

Avalon o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUMINAZIOA

SHANTY KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

honetekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



Loatzo musika eskolako ikasleen Gabonetako emanaldiak

ZIZURKIL-LARRAUL-VILLABONA ▶ Loatzo musika eskolako ikasleek emanaldiak eskaini zituzten bere herrietan. Santa Zeziliaren ondoren, buru-belarri aritu dira entseatzeko Gabonak aurretik izaten dira kontzertu hauetarako. Gurasoak erruz joaten dira beren seme-alabak ikusi eta entzutea, bakoitza bere instrumentuarekin zernola dihoan ezagutzera. Zizurkilen, herenegun, eta Larraulen eta Villabonan, atzo, egin ziren emanaldiak. Atxulondo izan zen

Zizurkilen (ezkerreko argazkian) ikasleen aurrerapausoen erakusleku. Larraulen (erdian) egun berezia izan zen atzo, lehenengo aldiz instrumentuak jo zituztelako herriko ikasleek. Orain arte ez da instrumenturik irakatsi eta aurten aurrenekoz, txikien musika tailerraz gain, ikasle batzuek instrumentuak ikasten hasi dira. Villabonan (eskuinean), Gurea aretoa guztiz bete zuten emanaldia joan zirenek. Izan ere, herri hau da musika ikasle gehienak ematen dituenak. I.GARCIA/HITZA

VILLABONA ▶ GIZARTEA


Etnogintzak landutako herriko mapa toponimikoa argitaratu du Udalak

Udaletxean banatzen zaio bertara joaten den edonori; 530 toponimo inguru biltzen dituen mapa argitaratzeko Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaso du

IMANOL GARCIA

530 toponimo inguru bildu dituzte atera berri den Amasa-Villabonako mapa toponimikoa. Baserri, mendi, ibai eta erreken izenak azaltzen dira Udalak bultzatutako mapan honetan eta Etnogintza enpresak burutu duena. 12.000 euroko aurrekontua izan du eta Eusko Jaurlaritzak %70eko diru laguntza eman du. Nahi duen orok udaletxean doan jaso dezake mapa.

Oso garrantzitsutzat du mapa honen argitalpena Xabier Zabala Euskara eta Hezkuntza zinegotziak. «Euskaraz-



Luis del Barrio eta Xabier Zabala, mapa aurrean dutela. I. GARCIA

ko toponimoak idatzita jasotzea eta berreskuratzea da helburu nagusietako bat eta gainera, tresna erabilgarria bilakatzen da bai euskararekiko, bai herria ezagutzeko. Ikastetxeetan, esaterako, harrera oso ona izan du», azaltzen du Zabalak.

Datu bilketa garrantzitsuena orain hamar urte egin zen. Baserri baserri ibili ziren inguruko izenak jasotzen Etnogintzakoak. Urte hauen ondoren izandako bilakaera urbanistikoa dela eta, teknika berriak erabiliz mapa berria osatzea otu zitzaion Udalari. «Mapa honetan toponimo batzuk izango

dira, gaur egun galduta daudenak», azaldu du Luis Del Barrio Etnogintzako kideak. «Lehen toponimia gurasoetatik seme-alabetara ahoz aho helerazten zen. Baina baserri munduak jasatzen dituen aldaketengatik, orain gutxi dira baserriko peto-petoak eta toponimo asko ez dituztenez erabiltzen, galten joan dira. Horregatik, mapa honen helburuetako bat historia guzti hori jaso eta gordetzea izan da».

Herriko hainbat elkartek ere parte hartu dute mapa osatzeko. Aizkardi mendi elkarrekin, esaterako, seinalatuta dauden mendi ibilbideak mapan jasotzen lagundu dute. «Ibilbideak egiterakoan mapa eraman dezakezu eta jakin une bakoitzean non zauden eta nola izena duten igarotzen dituzun lekuak», dio Del Barriok.

Mapa toponimikoa, gainera, aurkikuntzekin dator. Izan ere, Del Barrio berak beste bi trikuharri aurkitu ditu Oindolarren. Beraz, orain lau trikuharri daude zenbatuta eta Del Barriok ez du baztertzeko gehiago izan daitezkeenik. Sansonen hankazuloa izeneko elementu mitologikoa ere jaso dute.

AZPEITIKO IV. SAN SILBESTREA

ESKOLARRAK: 10:30ean
KADETE ETA JUBENILAK: 12:00etan 4.150 metro izango dira.
BESTEAK: 12:00etan 8.300 metro izango dira.
 * AURRENEKOENTZAT DIRU SARIAK IZANGO DIRA.
 * PARTAIDE GUZTIEN ARTEAN BIDAI TXARTELAK ZOZKATUKO DIRA.

Izen-ematea, 3 euro: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Zumai, Getaria, Zarautz, eta Orioko Kiroldagietan, HITZAko bulegoetan edo internet bidez: www.herrikrossa.com (antolatzaileek HITZA bideratuko dute diru hori)

KIMETZ
GAZTE ARROPA

OLENTZERO
hemendik
para da
eta zu!!

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

OLENTZERO ▶



Altzoko haurrek eta gatzetxoak gustura ireki zituzten Olentzerok eskura emandako opariak. O.ESKITXABEL

Ikatzik ez zuen banatu Olentzerok

Biharko lanak aurreratzeko hainbat herri bisitatu zituen atzo Olentzerok; txikienei opariak eman zizkien

OLAIA ESKITXABEL

Bihar opari guztiak banatzeko nahikoa astirik izango ez duela-eta, lanak aurreratzin ari da Olentzero. Haurrekin zuzeneko harremana izatea du gustuko urte guztia mendian ematen duen gizonak; oparien zain daudeneko urduritasuna, opariak eskuan egiten dituzten keinuak... gertutik ikuskatu nahi izaten du gizon tripahandiak.

Atzo, Lizartzako, Altzoko, Alegiako... eskoletako ikasleekin izan zen Olentzero, besteak beste.

Alegian Haur Hezkuntzako eraikin berria ezagutzeko aukera izan zuen Olentzerok; txikienei Olentzeroren inguruko istorioa kontatu ondoren, opariak banatu zituen.

Lizartzara abiatu zen ondoren; han zain zeuden eskolako ikasleak. Bertan, bere ohiko lanean aritu zen: Opariak banatzen, trukean muxuren bat edo beste jaso zuen. Azken egun hauetan Olentzerori abesteko entseguak egiten aritu dira eta bihar herriko kaleetan zehar ibiliko dira baserriarrez jantzita. Gurasoek, berriz, haurrek indarra hartzen joateko txorizoa prestatuko dute.



Olentzeroren ondoan Lizartzako ikasleek ateratako argazkia. HITZA

Lizartzatik Altzorako bidea hartu zuen; asto zuriarekin aldapa igo 16:00ak aldera iritsi da Altzoko Imaz Bertsolaria eskolara. Ordurako ikasleak, irakasleak eta gurasoak lurrean eserita zeuden Olentzerok opariak banatzeko zain.

Astoa eskolaren kanpoaldean utzi, opariak bizkar gainean hartu eta eskolara sartu zen. Jendeaurrean eseri eta izenak esan ahala, opariak jasotzera gerturatu ziren ikasleak zein irakasleak. Paper hotsa, irribarrera eta negar zotinak ere en-

tzun ziren. Jostailuak, liburuak... eskuartearen Olentzerori abesten amaitu zuten opari banaketarekin. Ikatza nahi zuenik ere bazen.

Olentzerok hustutako zakuak hartu eta mendirako bidea hartu zuen astoaren laguntzarekin; haur asko agurtzera irten ziren. Berriro ere zakuak betetzeko asmoz abiatuko zen, ziur asko mendira. Izan ere, datozen egunetan opari asko izango ditu banatzeko Olentzerok inguruko etxeetan.

ABALTZISKETA ▶

Guraso Elkarteko zozketako sarituak

Abaltzisketako Txalburu eskolako Guraso Elkartek zozketak atera ditu Gabonetarako; bi sari zozketatzen ziren: saski eder bat eta afari eder bat. Eskolan bertan egin zuten atzo goizean zozketa; sariak ezagutzen dira, beraz. Saskia, 358 zenbakiari egokitu zaio eta afaria, berriz, 688 zenbakiarentzat izango da.

ALBIZTUR ▶

Gazteentzako Internet ikastaro berezia

Albizturko KZgunean hamar eta hamasei urte bitarteko gazteentzat Interneti buruzko ikastaro berezia antolatu da; hiru eguneko iraupena izango du ikastaroak. Astelehenean, abenduaren 27tik 30era bitarte izango da 10:00etatik 12:00etara bitarteko ordutegian. Izena eman nahi dutenek 943 650685/943 653720 telefono zenbakietara deitu dezakete. Urtarrilaren 1etik aurrera, bestalde, tutorea hamabostean behin izango da KZgunean erabiltzaileen zalantzak argitzeko.

BELAUNTZA ▶

Ur deposito berria eta etxe tutelatuak martxan

Lan desberdinak burutzen ari dira Belauntzan. Ur deposito berria eraikitzeke lanak (lurrak mugitzen...) hasi direla jakinarazi du Belauntzako alkateak, Edurne Arbelegik. Era berean, etxe tutelatuak eraikitzeke bete beharreko izapide guztiak gauzatu ditu Udalak eta lanak hastear daudela azaldu du Arbelegik.



Albizturko KZgunea. HITZA

ALEGIA ▶

Saharara bidaltzeko janari bilketa, Aralarren

Alegiako udaletxeko gizarte zerbitzuetan eta San Joan herri eskolan Saharara bidaltzeko elikagaiak bildu dituzte herenegun bitarte. Urtarrilaren 10etik 21era bitarte, Aralar Institutuak hartuko du lekukoa; bertan, hegaluzea oliotan, azukrea eta konpreesak bilduko dituzte. Epe horretan, udaletxeko gizarte zerbitzuetan ere aipatutako elikagaiak jasoko dituztela azaldu dute.

ALEGIA ▶

Helduen Hezkuntza Iraunkorra

Iaz bezala, aurten ere Helduen Hezkuntza Iraunkorreko eskolak antolatu nahi dituzte. Urtarrilaren 10ean hasiko dira eskolak eta apirilaren 11 bitarte luzatuko dira. Eskolak, astelehenean izango dira zaharren egoitzan; ordutegia, 14:30etik 16:30era bitartekoa izango da. Izena eman nahi dutenek 943 612660/ 943 654768 telefono zenbakietara deitu dezakete.

EGUBERRIETAN ALDE ZAHARREAN IRABAZTEN ATERAKO ZARA

3.000€

Zatuz kanpaina honetako dendetara eta 3.000 euroko erosketa-txeke baten zozketan parte hartzeko aukera izango duzu. Horretaz gain, deskontu-saritan beste 3.000 euro banatu behar ditugunez, 30 eurorainoko deskontua irabaz dezakezu.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Erronka: 500 banderola Ibarrrako balkoietan zintzilik

Balkoietan banderolak zintzilikatzea eskatu dute; bihar manifestazioa egingo dute, presoen egoera salatzen



500 balkoi banderolekin ikustea espero dute Herri Ekimenekoek. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur gaueko bederatzietan Ibarrra etxeetako balkoietan Euskal presoak Euskal Herrira banderolekin betetzea, hori da Ibarrra Herri Ekimenak aurrera eramanez nahi duen erronka. Eta, hain zuzen ere, gutxienez 500 balkoietan ikustea banderola espero dute.

«Eta zuk zergatik ez? Zure elkartzasuna beharrezkoa dugu», esanez eskatu diete herritarrei kolaborazioa eta alde zuzeneko eskertu nahi izan dituzte gaur gauean parte hartuko dutenak Herri Ekimenekoek.

Banderola hauek Ibarrra Atari, Karlatz eta Zubiaurre tabernetan eskuratu ahal izango

dira. Eta banderola balkoietan zintzilikatzeko unea noiz izango den ohararazteko megafonia bidez emango dutela seinala adierazi dute Ibarrra Herri Ekimeneko ordezkariak.

Ez da aurtengoa horrelako erronka burutzen duten lehen-dabiziko aldia; pasa den urtean, Ibarrra sarreratik plazara bide osoa aulkiz betetzea lortu zuten. Kasu honetan, aulki bakoitzean pertsona bat jarri zen Euskal presoak Euskal Herrira-ko banderola eskuztatu zuela.

Proposatutako helburua lortuta, erronka hori betetzea posible egin zuten herritarrek eskertu nahi izan dituzte Ibarrra Herri Ekimenekoek.

Abenduaren 31n

Hileko azken ostiraletan egin ohi den bezala, abenduaren 31an ere euskal presoek aldeko kontzentrazioa egingo dute Ibarrran.

Eta kontzentrazioaren ostean manifestazioa izango dutela iragarri dute Herri Ekimenekoek. Izan ere, Ekaitz Aramendi, Eider Ijurko eta Jon Mintegiaga gazte preso ibarrraren egoera salatu nahi dute; «batetik kartzelak oso urruti egoteak suposatzen duenagatik eta bestetik lehenengo gradua aplikatuta dute hirurek eta gizazpiko egoeran daudela esan nahi du honetara».

Xepla elkarrekin, Sendi ekintza, Ibarrra Zikloturisten Taldea, Allur dantza taldea, Ibarrra Gaztetxea, Subegi elkarrekin, Ibarrra Bai Euskal Herriari, Eneko Aritzaren lagunak, Haitzetan Raju mendiko elkarrekin, Jubilatuen elkarrekin eta Uzta plataformaren atxikimendua jaso dute ekimenekoek, zuten helburua betetzeko eta ekimena herrikoia, anitza eta zabala izatea espero dutela adierazi dute.

Euskal presoek eskubideen defentsan, *Dispersioaren aurka* lelopean aterako da datozen ostiraletan, urteko azken eguna, manifestazioa Ibarrra plazatik arratsaldeko zazpietan.

OREXA ▶ KULTURA



Izengabeak erakusketako koadroetako bat. I.TERRADILLOS

Koadro erakusketa berezia ikusgai Orexan

'Izengabeak' erakusketak emakumeek dituzten gabeziak islatzeko saioa egingo dute

I.TERRADILLOS

Egun hauetan koadro erakusketa berezi batez goza daiteke Orexako Kontsu tabernan. Izan ere, pasa den ostiraletan ipini zituzten eta beste hilabetez luzatzeko asmoa dutenez, oraindik aukera dago Gipuzkoako herri txikienera hurbildu eta koadro hauek ikusteko.

Izengabeak izenarekin aurkezten dute eta hamalau koadro dira orotara, egilea, berriz ezezaguna. Emakumeek dituzten gabeziak buruz mintzo dira koadroak, izenburuak islatzen duen bezala. Nahi dutena adierazteko dituzten zailtasunak, jasaten dituzten mesprezuak, indarkeriak... horren

guztiaren ispillu izan nahi dute koadroek. Aurkezpena Joseba Sarrionandiaren *Ez diren gauzak* izeneko poemak osatzen du, eta «bizitza ez diren gauzez ere osatua» dagoela ohartarazten du bertan.

Bestalde, Lourdes Uzkudun tolosarra da duela hiru astetik Orexako Kontsu tabernaren arduraduna.

Berak adierazi duenez tabernara joaten den jendea koadroei begira geratzen da eta hauen esanahiaz galdetzen dute.

Honetan amaitu eta gero erakusketa gehiago jartzeko aukera emango duela ere aipatu du taberna-jatetxearen arduradunak.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

ETXEBIZITZAK

Alegia. Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Asteasu. 2 solairu, 3 logela, 2 bainu, sukalde-sala ekipatua eta 50 m²-ko terraza.

Berrobi. 90 m²-ko etxebizitza, sukaldea, igogailua, 12 m²-ko ganbara eta garaje marrarekin.

Berrobi. 90 m². 41.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Berrobi. 70 m². Altzariz hornitua. 2 logela, berogailua, teilatu berria, fatxada pintatu berria. 24.800.000 pezeta.

Ibarra. Maestro Guridi. Bizitzera sartzeko, 3 logela, eguzkitsua. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Atikoa, terraza 40 m², etxebizitza polita eta garaje ibixiarekin. **Ordizia.** Etxebizitza berriak, familia bakarrekoak. Eraikitako azalera: 242 m². Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Santa Klaran 111 m²-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m²-koa, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Korreo kalean etxebizitza batzuk, 70 m²-ko duplexa salgai. 15 m²-ko terrazarekin, teilatu berriak, berogailuarekin. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Korreo kalea. Duplex. 26.000.000 - 28.800.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Larramendi kalean 65 m²-ko etxebizitza, sukaldea altzariz hornitua, kanpo aldera begira, 2 logela, igogailua eta trastelekuak. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Foru etorbidean, leku hoberenean, erabat kanpo aldera, atikoa, 85 m² + 50 m²-ko terraza. Bista ederra. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua. trasteroa,

berogailua eta igogailuarekin. 68.500.000 pta. 669 87 19 09.

Tolosa. Iurre auzoan. 33 m²-ko txokoa, 10.000.000 pta, tartelantana.

Tolosa. Amaro auzoan, etxebizitza salgai 80 m²-rekin, igogailuarekin, 37.500.000 - 40.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Larramendi. 90 m², 3 logela, 2 bainugela, egongela handia, garajea 2 autorentzat. 669 87 19 09.

Tolosaldea. Etxebizitza berriak. 1 eta 2 logela. Garajea marrarekin.

NEGOZIOAK

Ileapaindegia. Ileapaindegia alokatzeko. 90 m². Guztiz diseinatua.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan.

Tolosa. Erremerentari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta.

Tolosa. 428 m²-ko pabilioi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbide ondoan.

Tolosa. Lokalak salgai, Laskurain kalean, Rondilla kalean, Erremerentari kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

Villabona. Lokal berria, 35 m², sukaldez hornitua, terrazarekin. 16.000.000 pta. 669 87 19 09.

HEZKUNTZA ▶

Atzo festak ospatu ondoren, gaur aurreneko opor eguna

Leitza eta Aresoko eskoletan aurtengo azken eskol-eguna ospatzeko Eguerritako jaialdiak egin dituzte, Areson Olentzeroaren sartu-atera eta guzti



Aresoko eskolakoek hainbat kantu ere egin zituzten, eta ez euskaraz bakarrik, ingeleraz ere bai, *Hello father christmas* kasu. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo zuten aurtengo azken eskola-eguna, Aresoko eskolan eta Leitzaoko Erleta eskolan ere, eta ikusgarritzako festak eginez ospatu zuten.

Biak hala bietan, maila guztietako ikasleek parte hartu zuten, jaialdi honetarako bereziki prestatuta zituzten lanak eta obrak jendaurrean aurkeztuz. Areson goizago hasi ziren ekitaldiarekin eta bertako eskolako ikasle guztiek, hainbat lantxo erakutsi zituzten, maila

desberdinetako ikasleak elkartuta, multzoka-multzoka: dantza, kanta, antzerkia, txontxongiloa... egun horretarako apainduta ageri zen gimnastikako aretoan.

Olentzeroren bisita

Jaialdia bukatzerako, ordea, Olentzero herrira zetorrelako hotsa iritsi zen hara eta, trikitalariak lagun, bidera atera ziren, ttikienak eta harrituagoak. Ongietorria egin eta eskolan bertan, banan-banan ume guztiak



Aretoa bete ikuslerekin, festa ederra antolatu zuten Erletan, maila guztietako ikasle, irakasle zein gurasoek ere. Irudian karaokea. J. A.

magalean hartu eta oparia emanez, beren portaeraz galdengin zien, «etzi [bihar], horren arabera erabakitzeko», zioenez. Ondoren hamaiketako egin zuten.

Erletan ere beste hainbeste egin zuten jaialdia bukatu zenean: txistor pintxoak banatu. Baina aurretik zer ikusia, eta zer abestua izan zuten eskolako jangela lepo bete zuten guraso eta lagunak. Antzerkirako erosi berria duten megafonia ekipoa estreinatuz, bi bat ordutako ikuskizuna eskaini zuten.

Mailaz-maila, ikasle guztiak igo ziren oholta gainera eta bakoitzak bere eszenografia propioarekin, lan bana eskaini zuten: antzerkiak, karaokeak, txisteak, kantuak... Aurreko egunetan egindako lana ederki asko erakutsi zuten. Azkenik, irakasleak berak ere kantari agertu ziren.

Bi funtzioetan, tartean-tartean, garaiari dagozkion Eguerrit kantak ez ziren falta izan eta ikasle guztiek, baserritar jantziak zituzten soinean, zenbait irakaslerekin batera.

EGUBERRIAK ▶

Bihar ongiatorri franko eginen zaizkio ikazkinari

18:30ean iritsiko da Leitza eta Aresora

J. ASTIBIA

Bihar arratsaldean iritsiko da Olentzero edo Orantzarro, Areso eta Leitzaera ere. 18:30ean jaitsiko da menditik eta ongiatorriaren ondoren, kalejira eginen dute bakoitzak bere herrian barrena.

Areson Mañenen behera azalduko da, bizi-bizia, eta Ola-etxeta aldetik itzuliko da mendira, opariak banatu ondoren; Leitzaan, berriz, Alde behera jai-

tsiko da txirrikan, Gazteluneko ganbarara eta atarira aterata, kalejira eginen dute herrian barrena, txistulari eta Asketa abesbatzarekin batera, plazan umeen gutunak jaso ondoren. Baina, eguerdian ere, Erleta eskolatik aterata, kalez-kale ibiliko dira umeak Orantzarroarekin.

Aspaldiko ohiturari jarraiki, etxeetan egun guztian Orantzarroak jartzen dituzten artean, bi saski zotz eginen omen dira.



Santomasetan, txistorra

LEITZA ▶ Horixe pentsatu eta egin zuten Leitzaoko jubilatuek elkarteko kideek ere. Herenegun iluntzean, txistor jatea ez ezik, bestelako txerriki frijituez ere ase ziren, jateko sasobe ederra izateaz gain, osasuna ere badutela frogatuz. Tabernan ere eskaini zituzten pintxoak, nahi zuenarentzat. J. ASTIBIA.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernaldea.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Iturrioz. Euskal Herria 3

(Ibarra). 943 67 09 15.

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Iddea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldeko. 687 41 01 18.

leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Soinu ekipoa. Soinu ekipoa osoa

salgai. Argibideetarako deitu:

943 674 806 edo 943 117 738.

LANA

Sukaldaria. Tabernarako

sukaldaria behar da

asteburuetan lan egiteko.

943 691 933.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 23a, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alzaspoteleta, Aduna, Albituz, Alegia, Alkiza, Alzo, Amerzetze, Araba, Balamán, Belduntza, Berastegi, Euzkadi, Herrialde, Iturr, Iruja, Lantzi, Leizorri, Lizarri, Orendain, Orens, Tolosa, Vitoriano, Zuzuki

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriaritza, Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...) **943 30 43 46**

GAURKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

12

hotzera

9

BIHARKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

ELURRA ARALARREN

Guardetxe: ez

Albi: ez

Pagomari: bai

Igaratza: bai

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Alpeen inguruko diapositiba emanaldia. 21:00etan, Gaztetxean.

Tolosa. *Bost urte autogestioa ikasiz!*, Bonberenean.

Tolosa. Herriko kirolari onenei sari-ematea. 19:00etan, udaletxean. Kirol Asteari amaiera emateko.

Tolosa. Gabonetako jaialdia, 16:30ean, Hirukide Gainberrin.

Tolosa. Gabonetako Haur Parkea Beotibarren. Gaztelu puzgarriak eta ludoteka, eta 17:00etan Euskaraokea.

Tolosa. Material bilketa Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikirako. Gaur, arratsaldez, Kultur Etxean.

Villabona. Eresargi abesbatzaren entsegu irekia Kultur Etxean, 20:00etan, Gabonetan abesten ateratzeko.

MUSIKA

Tolosa. Tolosako Orfeoiaeren Gabonetako kontzertua. 20:30ean, Santa Klaran.

Tolosa. Akordeoi eta koroko ikasleen kontzertua 19:00etan Musika Eskolan.

XVIII. SHANTI TORNEOA

Tolosa. Eguberrietako Areto Futbol Txapelketa Berazubi kiroldegian. Gaur hasiera: 15:00 Hirukide-Pumak (B); 15:45 Bihurriak-Zumadi (B); 16:30 Oyarzabal-Zumadi (FB); 17:15 Ugao-Azkar (FB); 18:00 Fronton kafetegia-Lagun Artea (C); 18:45 Diablos-Ugaro (C).

ZINEMA

Asteasu. *Sherk 2* Kultur Etxean 16:30ean.

Tolosa. *Open range.* 21:30ean, Leidorren.

Belengo atarira, 25. urtez

TOLOSA ▶ 'Oi Bethlehem' taularatu zuten herenegun Hirukide ikastetxeko ikasleek, Leidorren; Gabonetan egiten duten antzezlanak 25 urte bete ditu



Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak, Belengo atarira opariak eramaten. LEIRE MONTES



Erromatarren pregoia eta agindua, antzerkiaren hasieran. Atzean, herritarrak, azalpenei adi. LEIRE MONTES



Artzainak eta Olentzero begiorria, suaren inguruan, solasean. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Duela 25 urte hasi ziren antzetzten *Oi Bethlehem* lana Eskolapioetan, eta harrezkero urtero egiten dute. Gabonetan —lehen Eskolapioetan, orain Hirukiden—. Baina aurtengoa, urteurrenekoa, berezia izan da: Leidorren eskaini zuten, herenegun, eta ikasleek, irakasleek eta gurasoek eruz bete zuten aretoa.

Gidoilari, zuzendari, dekoratuaren arduradun... Itziar Orbea irakasle tolosarra da lanaren egilea. Iaz erretiratu arren, ohitura horrekin jarraitu nahi izan du. Gurasoen Elkarreak, urteotan egindako lana eskertzeko, lore sorta oparitu zion emanaldia amaitzean.

70 ikasle inguru aritu ziren herenegun aktore lanetan. Urduritasuna, emozioa, bat-batean esaldiak nola jarraitzen zuen ahaztu, mikrofonoa helzen ezin asmatu... Zuzenekoaren kontuak trebetasunez eta umore onez konpondu zituzten ikasleek. Eta barre artean eta txalo zaparradaz erantzun ikusleek.

Pertsonaia ugari azaldu zen Leidorreko taula gainean: erromatarrek, herritarrak, Maria, Jose eta Jesus haurtxoa, artzainak, Olentzero begiorria, aingerutxoak, Erregeak, Herodes maltzurra... Bertsuak, musika eta dantza ere ez ziren falta izan Belengo atariaren inguruan.

Antzerkia amaitzean txikienek Gabon kantak eskaini zizkieten Leidorren elkartutakoei. Bihar, eskualdeko beste ikastetxeetakoak bezala, kalez kale ariko dira kantuan.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Carlos Moreno Rekondo (Tolosa). Gaur 8 urte. Zorionak ebekoen partetik.



ZORIONAK
 Garazi Goenaga (Berrobi). Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu asko familia osoaren partetik.



ZORIONAK
 Maddi Otero (Anoeta). Gaur 6 urte. Zorionak aita, ama eta Xubanen partetik.

AGURRAK ▶



Martin Larraz Erbiti 'Attuna' (Leitza). Lehengo urtean joan zinen gure ondotik, zu hainako zulo handia utzit. Beti gurekin izanen zara.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetez, urteko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri.
 HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
 Udalspeko bulegoa - LEITZA
 Mesedez, ekarri argozkia bi egun lehenago. Milla eskert!

ZUTE
 943 67 14 27
 ileapaindegia
 santa klara 8